

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Adineko pertsonen elkarte eta erakundeentzat 1.300.000 euro banatuko ditu Nafarroako Gobernuak diru-laguntzatan

Funtzionamendu-gastuak eta autonomia pertsonala eta mendekotasunaren prebentzioa bultzatzen duten jarduerak finantzatzen laguntzera bideratuta daude

Martes, 17 de enero de 2012

Erretiratuen elkartei edo adineko pertsonen alorreko elkartei zuzendutako diru-laguntzen 2012. urteko deialdirako eskaerak aurkezteko epea zabaldu du Nafarroako Gobernuak. Elkarte horien [funtzionamendurako laguntzak](#), lokalaren eta pertsonalaren gastuak kontuan hartzen direlarik, zein [programak aurrera eramateko](#) laguntzak eskaintzen dira. Lehenengoak finantzatzeko 600.000 euro jarri ditu Nafarroako Gobernuak eta beste 700.000 euro bigarrenak finantzatzeko.



Adineko pertsonen elkarteentzat diru-laguntzak eskaintzen ditu Nafarroako Gobernuak.

Deialdi bietara aurkezteko epea urtarrilaren 14an zabaldu zen eta otsailaren 14ra arte egongo da zabalik.

Funtzionamendu gastuetara bideratutako diru-laguntzak

Elkarte eta klubien funtzionamendu gastuak eta haien zerbitzura kontratatutako pertsonalaren gastuak hartzen dituzte euren baitan diru-laguntza hauek. Pertsonalaren gastuetarako laguntzak erakundearen bazkide kopuruaren arabera izango dira. Horrela, garbitzaile, sukaldari edo atezainen pertsonal gastuetarako laguntzak jasotzeko aukera izango dute 50 bazkidetik gorako erakundeek bakarrik. Administrazio langileen eta langile teknikoaren gastuei dagokienez, bestalde, 500 bazkidetik gora dituzten erakundeek bakarrik jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak.

Langile hauen lanaldi osoko (40 ordu astean) honako gehienezko aurrekontua onartzen da: 20.722,52 euro urtean, diplomatutako

langileentzat; 16.784,88 euro urtean, administrazioko langileentzat, eta 11.524 euro urtean, atezainarentzat, eta garbiketako eta sukaldeko langileentzat.

Funtzionamendurako zuzendutako diru-laguntzak ere bazkide kopuruaren arabera izango dira. Honako gastuak onartuko dira: lokalaren errenta, argindarra, ura, berogailua, gasa, telefonoa, mantenu kontratuak, kanal digitalaren kostua, bulegoko materialaren erosketak, posta materiala, aldizkari eta egunkarietako harpidetzak, lokalaren aseguruia eta aholkularitza gastuak. Batzordeko kideen ordezkariaren gastuei dagokienez, lekualdaketa gastuak bakarrik onartzen dira (eremu urdina, kilometroak, autobusa eta abar), beti ere, klubaren jarduerekin lotuta baldin badaude.

Pertsonalari eta funtzionamenduari dagokion diru-laguntza honakoa izango da: elkarteak edo klubak 1 eta 50 arteko bazkide kopurua baldin badauka, ez du pertsonalari dagokion diru-laguntzarik jasoko, baina bai funtzionamendu-kostuen aurrekontuaren %36; 51 eta 150 arteko bazkide kopurua dutenek, pertsonalari dagokion aurrekontuaren %20 finantzatu zaio eta funtzionamendu aurrekontuaren %36; 151 eta 350 arteko bazkide kopuruarekin, langileriaren aurrekontuaren %40 eta funtzionamendu aurrekontuaren %38 jasoko du elkarteak; 361 eta 600 bazkide artean dituzten elkarten kasuan, langileriaren gastuen %60 eta funtzionamendu gastuen %40 finantzatzen dituzte diru-laguntzek; 601etik gora bazkide dituzten elkarteek, berriz, langileriaren gastuen %80 eta funtzionamendu gastuen %42 jasoko dituzte diru-laguntza bidez.

Errenta gastuei dagokienez, urteko 5.000 euroko gehienezko diru-laguntza ezartzen da.

Programak antolatzea bideratutako diru-laguntzak

Zahartze aktiboa, autonomia pertsonala eta adineko pertsonen mendekotasunaren prebentzioa sustatzera bideratutako programak izan behar dira, eta ondorengo jardute arlotan kokatu behar dira: prestakuntza-arloan, bizitza aktiboaren arloan (mantentze fisiko eta kognitiboa, aisia eta astialdia) eta bizitza produktiboaren arloan (belaunaldien arteko parte-hartzea, gizarte jarduerak eta jolas jarduerak eta okupazionalak). Kasu honetan, eta lortutako puntuaketaren arabera, aurrekontuan %80ra arteko laguntza onartu daiteke.

Diru-laguntzaren onuradun izan daitezkeen bi erakunde modalitate bereizten dira: Erretiratuen klub eta elkarteak eta adineko pertsonen zuzendutako berariazko programak garatzen dituzten beste erakunde batzuk, baina kolektibo horrek bakarrik osatuta ez daudenak.

Bestalde, diru-laguntzen xede diren jarduerak honako arloetan sartu behar dira:

a. Prestakuntza-arloa: Prestakuntza-ikastaroak (informatika, sukaldaritza, eskulanak, memoria tailerrak eta abar), kultura jarduerak (erakusketak, literatura, arte, sukaldaritza, argazkilaritza eta beste hainbaten lehiaketak, antzerki emanaldiak, musika emanaldiak (abesbatzak, jotak, kontzertuak), zinema proiektioak, hitzaldiak, mahai-inguruak, errezeta trukeak eta abar).

b. Bizitza aktiboaren arloa: jokoak, txapelketak, tailerrak eta jarduerak fisikoak (taichi, yoga, igeriketa eta abar), dantza, mendi-ibiliek, irteerak, bidaiak. Nazio mailako zazpi egun baino gehiagoko bidaiak eta nazioartekoak diru-laguntzetatik kanpo geratzen dira. Ez dira deialdiaren aurrekontuan sartu behar.

c. Bizitza produktiboaren arloa: Boluntariora (egoitzetara eta etxetara bisitak eta abar), egun berezien ospakizunak (bazkidearen eguna, nagusien eguna, aitaren eguna eta abar), gastronomia gertaerak (bazkariak, kalderoteak, afariak, askariak eta abar), bazkideekiko hartu-emana (jarduerak amaieretako jaiak, sari-banaketak, omenaldiak bazkideei, urtebetetzeak eta abar).